

TOKIKOM

2010eko ekaina | 94. zenbakia

aikear!

txorierriko aldizkaria

BERTOKO

musika tresnak
eta kultura

Elkarrizketak eta iradurak
 Zerbitzuak • C/Olabea
 48140, OLEA • Bilbo

Telefonoak:
 94 454 08 40
 94 454 08 41 (iradurak)
 Fax:
 94 454 08 41

elkarrizketak@agrojardinaestika.com
 www.agrojardinaestika.com

YAMAHA **YAMAHA** **HONDA**

agrojardín Estikene

Nikazon lizea eta forzuzko laneko
 teknarria saldu eta konpontzen ditugu

Irakurketa eta gaitasun
 Profesionalak eragiten dituzte
 Zure enpresa jasangarria

SOCIETÀ

www.aikor.com

EDIZIOAK,
 KONTABILIAK, SAR

MARINA AUTOMATIKUEN
 KATEA, LATAK,
 KYLIDOK, TARRAKIN

Margalekua, 11 - 48100 BILBO
 Tel. 94 454 33 34
 94 454 33 33 - Fax: 94 454 33 31

INCHAUSTI ESTAKOIA

Margalekua, 11 Bilbo, 48100 BILBO
 94 454 33 33 - Fax: 94 454 33 31 - Email: inchausti@inchausti.com

PB Peluquería Bege

estudio de peluquería

Urteak, 6. beheko solairu 94 404 27 07 - 48100 Bilbo

Antzokia **SAN ISIDRO**

TRANSPORTE, BARRIOAK, JARDINGINTZAK

Berrikuntza, Gaitasunak, Antzokiak
 Zerbitzuak, BARRIOAK, JARDINGINTZAK

www.aikor.com 94 454 33 34
 www.aikor.com 94 454 33 34

Las Artes de **Argemone**
 II PAPAINTZAK

www.aikor.com
 Bilbo
 94 454 33 34
 Fax: 94 454 33 31

desire

Estudio de Peluquería Bege
 Estudio de Peluquería Bege •
 Estudio de Peluquería Bege •
 Estudio de Peluquería Bege •
 Estudio de Peluquería Bege •
 Estudio de Peluquería Bege •

www.aikor.com 94 454 33 34
 www.aikor.com 94 454 33 34

Aldekoa Zerb

www.aikor.com 94 454 33 34
 www.aikor.com 94 454 33 34

LABORANTZ

www.aikor.com 94 454 33 34
 www.aikor.com 94 454 33 34

aldeko one

www.aikor.com 94 454 33 34
 www.aikor.com 94 454 33 34



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx)
Tel.: 94 452 34 47

aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Amagoia Guezuraga, Pospolin, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Erika Pereda, Lurdes Lasuen, Maripí Agirre, DAT Derioko Argazki Taldea, Javier Martín, Alexander de la Cruz, Ines Serrano, Oihana Astobieta, Lurdes Etxebarria, Belen Gana eta Juantxu Bilbao

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: AIKOR!

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.500


Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



EUSKO LAURAKURTERA
GOSTERNO BASCO

KULTURAN BAZUKI
I EUSKAL KULTURAN BAZUKI



diruz lagundutako aldizkaria



12 Luhartz taldea

22 Aldekonako jaiak

34 Gure señeak elkarte

-  4 Eritxia
-  5 Gutunak
-  6 Laburrak eta albisteak
-  11 Iruditan... Ilargiak liluratu nau
-  12 Gurean izan da... Luhartz taldea
-  14 Gaztea eta... Nerea Pedraz
-  16 Aspanovasen aldeko Futbol Txapelketa
-  18 Bertoko soinu-tresnen elkarte
-  22 Aldekonako jaiak
-  24 Lagatzu, Zamudioko eragilea
-  26 Literaturia
-  28 Txorierriko gaseosa
-  30 Elkarteak/Taldeak... Gure señeak
-  32 Baserri munduan... Joseba Ugalde moztailera
-  34 Teknologia... Pribatutasuna, e-mailetan
-  35 Aikorritzeta... Iturrian zer dago?
-  36 Sukaldaritza
-  37 Denborapasa
-  38 Agenda



ALBERTO

ARGITZKETA
EUSKAL KULTURAN BAZUKI



ama

liberak



**ESTILISTA
EVA ARDUÑES**

AmAr

ESTILISTA EUSKAL KULTURAN BAZUKI



ERIKA PEREDA
(Kazetaria)

Ekaina, murrizketak hasi zireneko hila. Nominak eta pentsioak ikuste-an, horretaz ohartuko dira funtzionarioak, enpresa publikoetako langileak eta amama Maite, besteak beste. Amama Maiteren pentsioa, gero eta laburragoa. Topiko bat da, bai, onartzen dut, baina, hala ere, guztiz garrantzitsua.

Gobernuek guraizeak hartu dituzte eta errazena egin dute: sekulako murrizketak abian jarri, ondorioak aztertu gabe. Amamak makroekonomia zer den ez daki,

horri buruz zer edo zer entzun du irratian, baina ez du ulertzen. Aitzitik, hilero pentsioaren azken zentimoekin zer egin badaki. Eta beraren antzeko asko egon badaude.

Ez dakite zergatik Estatu Batuetan gertatutakoa ailegatu zaigun, ez dakite Burtsak gora edo behera egiten duen, ez dakite milaka milioi euro zertan inbertitu, baina aurrezten jantziak dira. Eta ziur nago, agintariekin egongo balira, oso aholku onak emango lizkieketela; amamak ematen dizkidanak bezain baliotsuak: "Erika, itzal ezazu ordenagailua; bisitak egitera autobusean etor zaitez, beti autoan hona eta hara zabiltzala..." Hau guzti hau ez da politika, eguneroko gauzak baikizik; baina bai, oso gauza garrantzitsuak aurrezteko, politikan aplikagarriak. Horri, zoritxarrez, ekonomia lantzen dutenek ez diote erreparatzen.

Estamentu publikoek ahalegina eskatzen diote amamari, eta berak behartuta

egiten du; beste aukerarik ez du. Hala eta guztiz ere, hausnarketa egiten du... "Nork ordainduko ditu politikarien bizpahiru hilabeteko oporrak? Eta beharrezkoak ez diren jardun instituzionalak? Nola joango da aurrera gizartea ez bada zerbitzu publikoetan gehiago gastatzen?"

Telebistan gosari informatiboak deritzenak ikusten ditut askotan. Politikari edo enpresari ezagunen bat, gehienetan gizonez inguratuta, egiten duenaren ontasunen berri ematen, eta izugarriko gosariak hartzen. Posiblea da datu horiek prentsaurreko arrunt batean ematea? Erantzuna ondo dakit, bai. Eta diru gehiegi xahutzen den bitartean, amama inoiz ez da gosari horietara joango. Inoiz ez.

Krisia joan egingo da. Ez dut argi pentsioak igoko diren. Baina lasai egon, Maite. Nahi duzunean gosaltzera gonbidatuko zaitut. Galleta eta galleta tartean zure zenbakiak berregingo ditugu. Gaur egun, ez zaizkigu kontuak ateratzen.

Hizkuntzak jakitea bai garrantzitsua!

Zertarako? Gai bati buruz irakurri edota entzutean ulertzeko, informazio elkartrukatzeko edota gure arteko harremanak sortu eta sendotzeko.

Euskaraz eskura dezakegun informazioa urria da; euskara oso hizkuntza zaharra bada ere Hezkuntzan jaioberria da. Urte gutxi dira eskolak euskaraz hasi zirenetik, euskaltegiak sortu eta lan egiten hasi ginenetik, Euskal Herriko Unibertsitatea ere orain hogeita bosten bat urte hasi zen bere lehen ikasketak euskaraz eskaintzen.


Denborarekin egoera aldatuz joan



LURDES LASUEN
(Txorierriko Udal Euskaltegiko zuzendaria)

da. Egun euskaraz idatzi eta argitaratutako hainbat liburu ditugu; zenbait ikerlaririk egindako lanak ere euskaraz burutuak eta argitaratuak izan direlarik. Honek guztiak hizkuntzaren aberastasuna ekarri du euskararen esparru guztietara.

Enpresa munduak ere, gero eta garrantzi handiagoa ematen dio euskarari; hau da, ohikoagoa da enpresa bateara deitzea eta lehen agurra euskaraz entzutea, langileek euskara ikastea, lan-kideen artean euskara erabiltzea, paisaia lingüistikoan duen garrantzia azpimarratzea...



Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zerbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, Aikor!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortexori@aikor.com.

Nafarroaren konkista, Fernando Katolikoaren hilburukoa

2012an 500 urte beteko dira Gaztela eta Aragoiko soldaduek Nafarroako Erreina konkistatu zutela. Estatuko bozerra maileak eta historiagileak laster hasiko dira esaten hori konkista ez zela izan, erreinu bien arteko akordua baizik. Hona hemen Fernando Katolikoak berak bere hilburukoan, 1516. urtean, jaso zuena:

“Era berean, Juana erregina gure alaba txit maitea izendatu, eta berari eta Carlos txit gorena gure ilobari eta bere bidezko ondorengoei Nafarroa gure erreina eta hiri eta ziutate guztiak... uzten dizkiegu. Nafarroa konkistatzeko agindua Julio oroitzapen oneko Aita Santuak eman zigun, Nafarroako Juan erregea eta Katalina erregina zismatiko izendatu zituztelako, Erromako Aita Santuaren aurka zisma sortzea-

gatik. Eta erreinuaren gaineko eskubideak ere eman zizkiguten. Aurki lortutako erreina denez, aipamen berezia egiten dugu hilburuko honetan, eta Gaztelako erreinura atxiki...”

Bitxia da erlijioaren inguruan nola gertatzen ziren eta diren edozein gertaera, justifikazio eta abar. Fernando Aragoikoak Julio Aita Santuaren eskaerari leporatu zion Nafarroa konkistatu izana, bertan agintzen zuten errege-erregina protestanteak zirelako. Baina, jakin izan dugunez, Julio ez zen Fernandoren lagun mina, eta auskalo nola lortu zuen azken honek lehengoak agindua ematea. Edo, behar bada, ez zion eman eta, Nafarroa konkistatu ostean, egoerak hala behartuta onartu baino ez zuen egin. Hori da, hala ere, Fer-

nando Katolikoak eman zuen arrazoia, eta, bere hilburukoan idatzitakora mugatzen bagara, beste justifikaziorik ez zegoela sinetsi behar da. Nahiz eta edozeinek asmatuko lukeen, Fernandoren aseezintasuna izan zela Nafarroa konkistatzera bultzatu zuena. Bianako printzearen heriotza iluna gerta ondoren, gainera.

Gerora, Espainiako hainbat historiagilek amaordearen aldetik beste eskubide batzuk ere bazituela esan dute. Baina argi dagoena bere hilburukoan esandakoa da, eta erlijioaz baliatu zela Nafarroa konkistatzeko. Fernando bigarrenez ezkondu zen, eta Aragoiko eta Nafarroako erreinuak bigarren ezkontza horretatik jaiotako seme-alabentzat izango zirela esan zuen. Baina ez zuen ondorengorik izan, eta Juana alaba, Gaztelako erregina, ondorengo izendatu zuen Nafarroa eta Aragoiko erreinuetan ere bai.

Sabin Arana

ZAMUDIOKO ESTANOLA
Taloak, sifona eta esarik
KANTU BARRA, ZAMUDIOKO
Taloak eta sifona

LIPIKOR
Kantua, sifona, esarik, taloak
KANTU BARRA, ZAMUDIOKO
Taloak eta sifona

LIPIKOR
Kantua, sifona, esarik, taloak
KANTU BARRA, ZAMUDIOKO
Taloak eta sifona

ASESORIA
Liz. Fernando Aguirre, S.L.
Mendi Bideak, 1
Tf: 94 479 21 14 - Fax: 94 471 01 11
48700 SONTA (Bizkaia)

LITIGIO SONDIA LITIGIOSA
ARTE ENERGIK, ESKULANAK, E.A.
JOSU MARTIÑI / ANITA AMEZQU
Taloak, sifona, esarik, taloak
KANTU BARRA, ZAMUDIOKO
Taloak eta sifona

AIARRABI
Kantua, sifona, esarik, taloak
KANTU BARRA, ZAMUDIOKO
Taloak eta sifona


AIARRABI
Kantua, sifona, esarik, taloak
KANTU BARRA, ZAMUDIOKO
Taloak eta sifona

Euriak arazoak sortu zituen berriro ere

Euriak barra-barra ari zuen hilaren 16an, tregoa barik, eta Derion 112 litro ur hartu ziren metro karra-tuko. Euritearen ondorioz gainezka egin zuten errekek eta arazoak izan ziren gure eskualdeko hainbat tokitan. Horrela, bada, ura baserrietara, lonjetara eta industrigunetara sartu zen, eta auzo-bide batzuk moztu behar izan ziren Loion, Sondikan, Derion eta Zamudion. Errepide nagusia ere trafikorako itxi zen tarte batzuetan eta zirkulazio-arazo handiak sortu ziren.

DYAK eta suhiltzaileek txalupa motordunaz atera behar izan zituzten langile batzuk Sangroniz Sondikako industrigunetik, eta urak sei auto harrapatu zituen Derion, hile-riaren parean.

Zamudion, hango kiroldegian sortu ziren arazorik larrienak. Ura gimnasia eta aldageletara sartu zen, eta makina-gelan 1,5 metrora ailegatu zen, hango tresna guztiak hondatuz. Beste alde batetik, garrantzi gutxiko arazoak sortu zituen euriteak Lezaman eta Larra-betzun.



Teknologia hurbilago dugu

Ekainean BTEK Teknologiaren Interpretazio-zentroa inauguratu zen Zamudioko Teknologia Parkean. Teknologia interpretatzeko Euskadiko lehenengo zentroa da, eta proiektu aitzindaria ere bada Europa mailan, bertan hainbat teknologia integratzen baitira. Bitxikeria moduan, azpiegitura IPAD edo IPHONE baten bitartez kontrolatu egiten dela aipa dezakegu. Hau da, munduko edozein txokotatik eta botoi bat sakatuta eraikina eta horren barruan dauden azpiegitura guztiak piztu eta itzali ahal dira. Proiektuaren bultzagile izan dira Bizkaiko Teknologia Parkea, Elhuyar Fundazioa, Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak, SPRI eta Tecnalia.

BTEK zentroak zientzia eta teknologiarako bokazioak bultzatzea du helburu nagusizat eta horretarako, jokoen bidez hurbilduko die teknologia gazteei. Zen-

troa bereziki DBHko ikasleei dago zuzenduta. Bost aretotan –Berrikuntza kioskoa; Sarea eta mundu digitala; Planetaren zaintza etxetik hasita; Ziztu bizian! Badira beste munduak gure inguruan; eta L@btek- teknologia ezagutu eta bizitzeko aukera izango dute gazteek. Bisitaldiak datorren ikasturtean hasiko dira.

Teknologiaren Interpretazio-zentroa eraikin deigarria eta jasangarria da. Piramide bik osatzen dute: bata beltza da eta 18 metroko altuera du; eta bestea lurrean sartzen den piramide berdea da. Piramide beltzaren hegoalderako alderdian eguzki-plakak jarri dituzte, eta aire giroturako sistema geotermiko bertikala erabiltzen da.

BTEK 2009ko kultura-erakinik onena aukeratu dute ArchDaily arkitekturari buruzko webgunean.

ASADOR ZAMENDI

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEAK
JAUNARTZEAK**

Arlanaga auzoa, 119
Telefonoa: 94 417 11 18
ZAMENDI

LARRADETZU
94 417 11 17
LARRADETZU SARRAIA
(BERRITAN)

Aikor

Informazio tekniko, teknologia berria, ...
Planeta Digitala, Sarea eta Berrikuntza

94 417 11 18
www.aikor.com

**DETRONIZATZEA
BERRI BERTZEA**

WARRIOR

94 417 11 18
www.warrior.com

Futbolaren oinarriak, euskaraz

TOTOAN Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioak eta Itzarri Aholkularitza enpresak *Futbola, oinarritik euskaraz* liburua aurkeztu dute Sondikako Udaletxean. Liburua futbol entrenatzaileei dago zuzenduta, eta kirol arloan euskara bultzatzea du helburu.

Koikili Lertxundi Athleticetako jokalarriak eta Mikel Aramaiok egin dute lana, eta besteak beste, teknika, taktika eta estrategia jorratu dituzte bertan. Txorierriko Mankomunitateak eta Bizkaiko Foru Aldundiak babestu dute liburua.

Itzarri enpresak entrenatzaile euskaldunen eskola jarri du martxan gurean, bertoko futbol entrenatzaile gazteek entrenamenduak euskaraz eman ahal izateko.

Klase teorikoak Bilboko Euskararen Etxean egin dira eta hil honetan amaituko dira. Klase praktikoak, berriz, Sondikako futbol zelaian hasiko dira irailean. Liburua klasean ikasitakoaren osagarria da eta entrenatzaileek laguntza-materialtzat erabiliko dute.

Gorka Carro Txorierriko Mankomunitatearen presidenteak azaldu duen bezala, entrenatzaile euskaldunen eskola Mankomunitateak aspaldian martxan jarri nahi zuen egitasmoa da. "Proiektua Txorierri eratu dugu, baina gure asmoa Bizkaira, eta, ahal izanez gero, Euskal Herri osora zabaltzea da," aipatu du Koikili Lertxundik. Liburua Txorierriko eskoletan eta futbol taldeen artean banatuko da.



Lezama, garrantzitsua Burdinazko gerrikoan

Hirurogeita hamahiru urte bete dira Francoren soldaduek Burdinazko gerrikoa apurtu eta Bilbora sartu zirela. Lezamako herriak bataila horretan eta Burdinazko gerrikoan izan zuen inportantzia oso ezaguna ez da, beharbada. Hala ere, Lezama Bizirik elkartetik azaldu duten moduan, azpiegitura horren zati garrantzitsu bat herria inguratzen duten mendietan kokatu zen. Soldaduek Lezamako muga, Urrusti eta Gaztelumendiren artean dagoena, aukeratu zuten gerrikoa apurtzeko.

Urteurrenaren haritik, Lezama Bizirik elkarteak ibilaldia egin zuen Gaztelumenditik Urrustimendira. Ibilaldian 30 lagunek hartu zuten parte. Ibiltarien artean eskuliburuak banatu zituzten, eta guztiek arreta handiz jarraitu zieten Josu Ziordiak emandako azalpenei. Zuhaitzek eta sastrakek ingurua hartu bazuten ere, elkartekoak garbitze lanetan ibili ziren aurretik, eta bidaiariek lubaki, bunker eta aterpen hondarrak ezagutzeko aukera izan zuten; hau da, historiaren zati bat ezagutzeko aukera.



OSTERRAK
TERRENE
Jarduerak eta Lanak
09-08-027
Lanaren ondoren, 10:00etan

OSTERRAK
Aldeak gurean
umetarako
Gurean gurean
Kontakutarako
10:00etan

DERIO FISIOTERAPIA-ZENTROA

- Tratamendu guztiak
 - Lurkuntza-terapiak
 - Ezker-erretinoplastia
 - Kinesioterapia
- Ginekologia eta garna-terapiak


+ 30 urteko esperientzia

• Inbisa ezaugarria

Orduak: 09-21-08

Avilanesa, 10, 48100 Leizoragorria | 48100 Leizoragorria | 94 219 04 98 00

Goitioltza jaietan dago uztailean



Uztailaren 9an, barikuan

18:00: Txupinazoa eta jaien hasiera.
18:00-22:00: Ume Eguna: puzgariak eta zezen mekanikoa.
22:00: Erromeria, Zurruts taldearen eskutik.

Uztailaren 10ean, zapatuan

10:00: "Goitioltza ezagutu" ibilaldia, Zorritzetan euskara elkarteak antolatua.

15:00: Herri bazkaria (txartelak herriko dendetan daude salgai: 13 eta 9 euro).

18:00: Herri olinpiadak.

23:00: Erromeria, Lakets taldearen eskutik.

Uztailaren 11n, domekan

13:00: Produktuen dastatzea: txakolina, pintxoak... Zorritzetan euskara elkarteak antolatua.

16:00: Mus eta Poker Txapelketak (izen ematea, 15:30ean: 20 euro).

17:00: Umeentzako tailerrak.

19:00: Saiheski jana, doan. Trikitiak girotua.

20:00: Sariak banatzea eta jaien amaiera.



Institutua berehala handitzeko eskatu dute Gurasoen Elkarteek

Txorierriko Ikasleen Gurasoen Elkarteak sinadurak biltzen ibili dira, Derioko Institutua berehala handitzeko eskatzeko. Orotara 1.172 sinadura bildu dituzte, eta horiek Hezkuntzako Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan aurkeztu dituzte.

Derioko Institutua txiki gelditu da Txorierriko ikasle guztiak bertan hartu ahal izateko. Horrela, bada, Lehen Hezkuntzako Eskolakoa den eraikin bat orain dela urte asko utzi behar izan zitzaion institutuari, klaseak han eman zitzaizten. Gurasoen Elkarteek institutuaren handitze lanak berehala hasteko eskatu dute, "eraikin hori libratu eta eskolako ikasle batzuk barrakoietan egon ez daitezela". Era berean, jantokirako eta beste beharrezan bazuei aurre egiteko leku handiagoa egon-

go zela aipatu dute, eta institutua kolapsatzea saihestuko zela, Txorierrin Bigarren Hezkuntza Publikoko beste aukerarik ez dagoen bitartean. "Eta aukera hori dagoenean, Derioko Institutuari dagokion eskualdeko ikasleriaren eskaerari erantzuna eman ahalko zaio".

Gurasoen Elkarteek uste dute Hezkuntzako Bizkaiko Ordezkaritzako talde teknikoaren eta Institutuko zuzendaritzaren artean adostutako proiektua gaurkotu behar dela. Beste alde batetik, institutua handitzeko proiektuaren lizitazioa desblokeatu behar dela esan dute, eta 2008-20012 Azpiegitura Plana bete behar dela. Azaldu dutenez, plan horretan 3.680.000 euro bideratu dituzte Instituturako.



Gurea Aretoa txiki gelditu zen Antzerki Topaketetan



Ekainean, Txorierriko Antzerki Topaketak egin ziren bigarren aldiz, Derioko Gurea Aretoan. Jarduera hori Tximitx eus-kara elkarteak antolatu zuen, Kurkuluxetan Bilboko antzerki eskolaren laguntzaz.

Topaketetan Kukuke Derioko antzerki eskolako ikasleek eta Kurkuluxetan eskolako ikasleek hartu zuten parte. Aktore gazteek lau lan antzeztu zituzten: *Romeo eta Julieta*, *Bankuaren lapurketa*, *Itsasoko misterioa* eta *Edurne zuri, zer zuril!*. Gurea Aretoan jendetza handia batu zen eta batzuek kanpoan gelditu behar izan zuten leku faltaz. Aipatu beharra dago, antzezlanean euskaraz izan arren, erdaldunak ere joan zirela aretora, eta antzezeleen

gurusoak, senideak eta lagunak izan zirela ikusleen artean.

Topaketek helburu bikoitza izan zuten: alde batetik, antzerki eskolako ikasleek ikasturte osoan egindako lana jendarean erakustea eta, bestetik, Derioko eta Bilboko eskoletako kideek elkarrekin trukatzea euren esperientzia.

Kukuke antzerki eskola ikasturte honetan jarri da martxan, eta bertan 12 ume aritu dira. Antzerki Topaketak erabat arrakastatsuak izan dira eta, haiei esker, ume asko animatu dira datorren ikasturtean eskolan parte hartzera. Aurrematrikula ekainean izan bazen ere, irailean berriro zabalduko da izen ematea.

Garitano, Bizkaiko Txapelketara

Urrian hasiera emango zaio Bizkaiko Bertsolarien Txapelketari eta Ortzi Garitano derioztarrak bertan hartuko du parte. Bertsolaria hirugarren lotu zen Uribe Butroeko finalean, eta Bizkaiko Txapelketarako zuzeneko txartela eskuratu ez bazuen ere, puntuazioaren arabera lortu du sailkatzea. Garitanok sei urte eman ditu taulara igo barik eta, azaldu duen moduan, oso pozik dago Uribe Butroeko Txapelketan egindako lanarekin. Hala ere, jakin badaki Bizkaiko Txapelketa gogorra izango dela. "Parte-hartzaileak gogoz aritzen dira eta, ondorioz, maila eta exijentzia igo egiten dira. Nik ere gogoz prestatuko dut nire burua, eta ahalik eta ondoen egiten saiatuko naiz".

Txakolinaren Egunak luze jo zuen Lezaman

Ekainean Lezamako Txakolinaren Eguna egin zen bigarren bez. Herrian 1.800 pertsona inguru batu ziren eta hain gustura izan ziren, ezen azoka arratsaldeko 5etara arte luzatu baitzen. Azokan Lezamako bost txakolin egilek hartu zuten parte: Aiarza, Erdikoetxe, Abilio Hernández, Basalbeiti, Magalarte eta Garkalde; eta Larrabetzuko hiru ekoizleak: Gerediaga, Sasiakoetxe eta Sasines. Orotara 700 litro txakolin saldu ziren. Horrezaz gainera, ohiko produktuak ere jarri ziren salgai eta ikusgai.

Gaurko nagusia, gure artean

Angel Serrano Derioko Institutuko Gurasoen Elkartearen egoitzan harrapatu dugu. Minutu gutxi barru egingo diote omenaldi bat, baina bera datorren ikasturterako materiala dabil prestatzen. Telefonoak jo du eta areto nagusira lehenbailehen joateko esan diote. "Banoa", erantzun du.



a: Javier Martín

Bizkaiko hainbat elkarte eta erakunde publikok eta pribatuk "Gaurko Nagusia" saria antolatu dute lehenengo aldiz. Sariak gure nagusiek eskuzabaltasunez gizarteari egiten dioten ekarpena jendarean aintzatestea du helburu. Serrano saridunetarikoa bat izan da.

Serranok 30 urte baino gehiago daromatza lanean, Gurasoen Elkartearen. "Institutua sortu zenetik; beraz, atera kontuak. Seme-alabek institutua utzi zutenean, berton jarraitzea erabaki nuen. Non e-gongo nintzateke hemen baino hobeto? Kartetan-edo jolastan? Ba, uste dut ezetz. Begira, ordenagailua erabiltzen ere ikasi

du! Nork esango zidan niri informatika eta guzti ikasiko nuela?"

Beste eginkizun batzuen artean, Serrano ikasleek erabiltzen dituzten liburuak eta koadernoak ditu ardura. Urte luze hauetan eskola-materiala ibili da Gurasoen Elkartearen egoitzan saltzen eta hala, ikasleek eta gurasoek liburuen bila kanpora joan behar izatea saihestu da. Institutuko zuzendaritzak lan desinteresatu horregatik proposatu zuen sarirako.


Soinez soin

Ekitaldia maiatzaren 25ean egin zen Guggenheim museoan eta Serranok eta beste gaurko nagusi bik Ibarrolak eginda-

ko eskultura jaso zuten saritzat. "Nirea ikusten ez den eginkizuna da, inor konturatu gabe egiten dena. Oso hunkigarria izan da hainbeste jenderen esker ona jaso izana". Hala ere, institutuak lehiaketarako bera proposatze hutsa saria izan dela ziurtatu du gure gaurko nagusiak. Horregatik, institutuko irakasleek, ikasleek eta langileek segundo gutxi barru egingo dioten omenaldia askoz hunkigarriagoa da berarentzat. "Hainbeste urteren ostean, Morgatik Erandiogoikora arteko ia gazte guztiak ezagutzen ditut, hazten ikusi ditut... Institutuko irakasle eta langileekin lan egin dut soinez soin... Eskertzekoa da, benetan".

Institutuko areto nagusia jendez dago beteta. Ikasturte amaierako jaialdia dabilta ospatzen eta inork ez du hura galdu nahi. Kanpoan egon diren lagunak-eta agurtu ostean, barrura sartu da Serrano, eta bertaratutakoen berotasuna jaso du. Esker on, emozio, ospakizun eta hitz politerrako momentua da; gero, lanera bueltatu beharko da berriro.

"Nirea ikusten ez den eginkizuna da. Hunkigarria da hainbeste jenderen esker ona jaso izana"





Lilurutzen nau ilargiak

Ilargia eder-eder ikusi nuen gau batean, liluratuta utzi ninduen. Etxetik irten eta Derioko San Kristobal elizaren ondo-ondoko autobus-geltokira abiatu nintzen. Handik irudi hau ageri zen zerumugan.

Argazkia: Juan Antonio Tejada (DAT, Derioko Argazki Taldea)

FIBRAS Y REFORMAS
SOP & TRANSACCIONES S.L. (SOP. 1987-1988)

Gomotxa

Finanziazioa, Inbargainak
INBENTSIONEN KOOPTABILIZAZIOA

Industria eta Merkataritza, Plazaren
18 48940 BILBAO
94 493 21 76
94 493 21 76
94 493 21 76

Garmendia ardoak



Plaza Jaki, 7, 2A
48760 GARMENDIA
Tel./Fax: 94 427 00 49

GUZDAN
servicios deportivos, s.l.
deportiva y recreativa, s.l. (SOP)
-ESTABLECIMIENTO P. 1987-1987-



ZAMUDIOKO UROLA BIKOLDEKOLA
Tel. 94 427 01 00 Fax. 94 427 01 01

Imprentataria | Komunikazioa | Enkarguak mugikorrak | Scanner & txosten kargatzaileak | Zeregrafia

Zamudio
Plaza 7 de septiembre, 10a.
1º y 2º 48101 Zamudio
& Zamudio plaza 7a.



cianoplan
GRUPO CIBERPLAN

902 103 763
www.cianoplan.es

BARAKALDO · BILBAO · DEIXU · ZAMUDIO

Jaietako gatza eta piperra

LUHARTZ TALDEA

Erromeriak eta udea batera etorten dira. Hainbat talde ezezagunek laguntzen dabe gure herrietako jaiak girotzen. Jaietako gatza eta piperra dira. Luhartz taldea horreetako bat da eta aurton hiru aldiz etorri da Txorierrira: maiatzean, Dantzari Egunean izan genduan; eta ekainean, Sondikako eta Loiuko jaietan.



t: Gaizka Eguskiza / a: Luhartz

Luhartz taldea 1983an hasi zan joten, eta guztira bost disko plazaratu ditu. Hasi-kera baten, kide bik osotzen eben taldea, baina bost dira gaur egun: Aintzane Uri, Etor Akordagoitia, Aitor Gallastegi, Aitor Aranburu eta Rafa Iriondo. Rafa partaidea ez eze, taldeko sortzaileetako bat be bada. Bere ustez, aldaketarik egon arren, arima berari eusten deutso taldeak den-porearen porasuz. "Gu cover band gara,

hau da, inoren kantak abesten doguz, eta erromerietan joten dogu. Hori egiten dogu, eta hori gustetan jaku".

Batez be Nafarroan, Gipuzkoan eta Durangaldean emoten ditue kontzertuak, baina azken bolada honetan Txorierritik be zenbait dei jaso ditue. "Bertoko jenteak primeran hartu gaitu eta giro ederra egoten da kontzertuetan". Euren emonaldietan danetarik entzun ahal da: ohiko euskal dantzak, dantzatzeko betiko kantak edo gaur egungo popa. Errepertorio opa-

roa eta askotarikoa, beraz. Eta urtero-urtero kanta barriak sartzen ditue.

Atzerriko kantak kantetan be ausartu dira, Eagles taldearen *Hotel California* abestia, esate baterako. Aintzane abeslariak kantak moldatu eta euskerara itzultzen ditu. "Naturaltasuna emotea da gatxena, eta leloa jatorrizko kantetan dagan moduan ixten dogu askotan, hau da, ingelesez, eta osteangoa euskeraz egiten dogu. Holan, kanta-sorta zabalagoa dogu joteko, eta, bide batez, taldekide bako-txak erea eukiten dau gustetan jakona eszenatoki ganean jarteko".

Azken bost urte honetan 1.600 kontzertutik gora eskini ditu Luhartz taldeak Euskal Herrian. Urietan, herrietan edo auzoetan ikusi eta entzun ahal izan doguz. Jentea da euren publikoa, eta hari emonaldietan parte hartzeko gonbitea egiten deutse Rafak. "Euskal Herrian lotsatiak garala esaten da eta neurri baten egia da; baina jenteak dantzak-eta badakiz, azkenean kontzertuan hartzen dau parte. Askotan guk geuk irakasten doguz dantzak kantaldia hasi baino lehen; holan, jenteak hobeto pasetan dau".

Krisiak sortutako aukerea

Erromeriak herriko jaietan antolatzen dira, baina krisia dala-eta, udal aurrekontuek behera egin dabe, eta gaur egun gero eta kontzertu gitxiago egiten dira.







*“Inoren kantak
abesten doguz eta
erromerietan joten
dogu. Hori
gustetan jaku”*

*“Txorierriko jenteak
primeran hartu gaitu
eta giro ederra egoten
da kontzertuetan”*

*Taldeko kantaldietan
danetarik entzuten
da: euskal dantzak,
dantzatzeko kantak
edo popa*

Halanda be, horrek aukera zabalagoa emon deutso taldeari. “Azkeneko urte bian inoiz egon ez garan lekuetatik hasi dira deitzen. Adibidez, behin Sopuertara joan ginan erromeria egitera Mikel Erenxunen kontzertuaren ostean. Lehen esaten zan diru gitxi kobraten genduan musikariok txarrak ginala, baina hori ez da egia. Guk kontzertu politak egiten doguz eta, ganera, ez dogu gehiegi kobraten”.

Baina Txorierrin edo Euskal Herrian ez eze, kanpoan joteko aukerea be sortu jake. Non eta Estadu Batuetan. Rafaren lehengusina Kalifornian bizi da eta bere bitartez Ameriketako Euskal Etxeakaz jarri zan hartu-emonetan. “Urtero-urtero joaten gara hara, eta kontzertuak eskintzen doguz. Esperientzia zoragarria da. Primeran trataten gaitue eta geu be pozpozik ibiltzen gara. Besteak beste, Kalifornia, Nevada eta Arizonatik ibili gara. Bertan euskeraz abesten dogu, eta harrigarria da hango jenteak euskal ohiturei eustea, nahiz eta Ameriketara oso aspaldian ailegau ziran euskaldunen ondorengoak izan. Eta batzuetan euren lagunak be, jatorriz amerikarrak diranak, gugaz ibiltzen dira kantetan eta dantzan”.



“Koaderno eta boligrafoa hartu eta irudimenari uzten diot gainontzekoa egiten”

t/a: Joana Uriarte

Noiztik idazten duzu?

Irakurtzen ikasi nuenetik. Istorioak asmatzea gustatzen zitzaidan.

Zertaz dijoa liburua?

Protagonista barnetegi batean sartzen duten 15 urteko neska bat da. Han maitasuna ezagutzen du, baina batez ere lagunak izatearen garrantzia.

Idatzi duzun lehendabiziko liburua da. Esperientzia gogorra izan da?

Liburua idazten bederatzi hilabete eman ditudan arren, gustatzen zaidalako idazten dut; ez hala egitera behartuta na-goelako. Horregatik gogorra baino, pozgarria izan dela esango nuke.

Zelan ailegatu zitzaizun liburua argitaratzeko aukera?

Anubis argitaletxea Interneten topatu nuen. Liburua e-mailez agindu nien, eta gustatu zitzaien. Arrakastatsua izan ziteke-ela esan zidaten eta argitara eman zuten.

Zein da zure idazlerik kuttunena?

Marina nire lehengusina. Ni bezala, hasi berria da mundu honetan, baina munduko idazlerik onena da niretzat. Beste alde batetik, Stephenie Meyer asko gustatzen zait, eta berak idatzitako *Ilunabarra* saga.


Nolakoa da zure lan egiteko era?

Koaderno eta boligrafoa hartu, edo *pen-drivea* ordenagailu eramangarrian sartu, eta irudimenari uzten diot gainontzekoa egiten. Istorioak etorri ahala idazten ditut; ez ditut inoiz prestatzen, hori ezarritako arauei jarraitzea dela pentsatzen dudalako. Eta nik nire erara idazten dut, arau barik.

Zer duzu esku artean?

NEREA PEDRAZ | idazlea

Hamahiru urte baino ez ditu eta lehendabiziko liburua idatzi du dagoeneko. Nerea Pedraz sondikoztarrak *Lagun bat altxorrik preziatuena da* lana aurkeztu berri du. Liburua Anubis argitaletxeak kaleratu du.



Liburu batzuk nabil idazten batera. Horien artean, *Lagun bat altxorrik prezia-tuena da* liburuaren bigarren zatia dago.

Badago irakurtzen bukatu ezin duzun libururik?

Batzuk, baina niretzat oso zailak izan direlako. Badakit noiz edo noiz irakurri ahal izango ditudala, eta dena ulertuko dudala.

Zertan ematen duzu denbora idazten ez duzunean?

Lagunekin irteten naiz, musika entzuten dut, egiten nabilen antzezlanak ikasi... baina batez ere barre egin.

Nola imajinatzen duzu zure burua 10 urte barru?

Kazetaria izan nahi dut, eta prentsa idatzian edo telebistan aritu. Idazlea naizenez, ondo egin dezakedala uste dut. Eta denbora libredu dudanean, nire eleberririk idatziko ditut.

Zer esango zenioke literatura munduan hastea erabaki duen lagun bati?

Hitz garrantzitsuenak hauek dira: ez etsi. Beti egongo da zu baino hobea den norbait, baino horrek ez du esan nahi zuk balio ez duzunik. Bete zure ametsak, eta ez begiratu atzera.

Zein da irakurri duzun azken liburua? Eta ikusi duzun azken pelikula? Entzun duzun azken diskoa?

Irakurri dudaz azken liburua Carlos Ruiz Zafón idazlearen *Marina* izan da. Izugarri gustatu zitzaidan. Eta ikusi dudaz azken pelikula *Printzesa ezkongai*a izan da. Ez naiz pelikula hori ikusteaz nekatzen, askotan ikusita dudaz arren. Musikari



“Kazetaria izan nahi dut, eta prentsa idatzian edo telebistan aritu”

“Gogorra baino, pozgarria izan da liburua idaztea”

dagokionez, Demi Lovato gustatzen zait. *Gift of a friend* gehien gustatzen zaidan abestia da. Adiskidetasunari buruzkoa da eta badu zerikusia nire liburuarekin.

Zeintzuk dira irakurtzeko aholkatuko zenizkigun bost liburuak?

Hasteko, *Ilunabarra* saga eta Marina nire lehengusinarik idatzitako *Bihotza, baitaila egun batean galdu zuen soldadua bezala* liburua. Lehen aipatutako *Marina* liburua ere oso ondo dago, idazleak misterioa lantzen duelako bertan, abentura, maitasuna... Oso liburu interesgarria da eta izugarri gustatu zait. Horiek nire libururik kuttunenak dira, baina Caludia Grey idazlearen *Gauerdia* saga ere oso interesgarria da, edo *Harry Potter* saga.

t: Maripi Agirre / a: Alexander de la Cuz (UFE)

Baloia protagonista nagusia izan zen asteburu osoan zehar. Ekimenak helburu bikoitza zuen: alde batetik, Uritarra futbol-eskola ezagutzera eman eta bertan aritu diren gazteei agurra egitea; eta bestetik, minbizia duten umeen errealitatea herritarrei hurbiltzea. Txapelketa lehenengo aldiz egin zen eta bertan kimu kategoriako 300 gaztetxok hartu zuten parte. Elkartasuna eta ilusioa ere nagusi izan ziren jokalariek eman zuten pase bakoitzean.

Txapelketan talde hauek ibili ziren norgehiagoka: Santutxu, Danok Bat, Romo, Gernika, Deusto, Leioa, Jesuitak, Getxo, Sondika, Bermeo, Derio-Artega, Antiguoko, Athletic, Eibar, Racing de Santander, Uritarra, Zaragoza, Sporting, Falcesino eta Atletico de Madrid. Finalera Zaragoza eta Atletico de Madrid ailegatu ziren eta txapelduna bigarren hori suertatu zen.

Finalean, hain zuzen ere, bizi zen jaialdiko momenturik hunkigarrienetako bat. Ohorezko satea Lutxik egin zuen. Lutxi minbizia duten seme-alabak dituzten familiengandik oso hurbil dagoen laguna da, eta horrexegatik berak egindakoa

Elkartasuna eta ilusioa pa

Ekainaren 11tik 13ra bitartean Aspanovas elkartearen aldeko Futbol 7 jaialdia egin zen Larrabetzun. Ekimena Uritarra futbol-eskolak antolatu zuen, eta berdegunean Euskal Herritik zein Estatutik etorritako 20 futbol talde aritu ziren.



FLORRIETA
INSTALACIONES

Para: **Instalaciones Deportivas**

Edificio 100, 28.ª planta, Puerto de Asón
28.ª planta, 28.ª planta, 28.ª planta

Alameda de Euzkadi, 100. 28.ª planta, 28.ª planta

Trasladados
ETXONE

Alameda de Euzkadi, 100. 28.ª planta, 28.ª planta

Alameda de Euzkadi, 100. 28.ª planta, 28.ª planta

ARANTZA APONDATIAIN LADA
OSKARREKIN

Alameda de Euzkadi, 100. 28.ª planta, 28.ª planta

Alameda de Euzkadi, 100. 28.ª planta, 28.ª planta

se bakoitzean

sake soil bat baino gehiago izan zen; hau da, babesa eta esker onaren adierazlea izan zen.

Euria lagun izan genuen txapelketak iraun zuen hiru egunetan, baina zaparradek ezin izan zuten antolatzaileen eta parte-hartzaileen ilusioa hondatu. Giro bustia izan bazen ere, jokalariek eta futbol-zelaira hurbildu zirenek zein lanean ibili zirenek giroa berotzea lortu zuten. Kiroltasuna eta elkartasuna batu ziren Larabetzun.

Pertsonak hezten

Jaialdian 6.000 euro inguru batu dira eta diru hori osorik eman zaio Aspanovas elkarteari. Horren haritik, Uritarrak futbol-taldeak, Uritarra futbol-eskolak eta Aspanovasek eskainitako laguntza eskertu nahi diete eurekin bat egin duten elkarte, enpresa eta tabernei. Eta bereziki Larabetzuko herritarrei, euren laguntza barik ezinezkoa izango zelako halako jaialdia antolatzea. "Hau bezalako ekimenak aukera ematen digute Aspanovas zer den eta zer egiten duen jendeari ezagutzera emateko", azaldu zuen Juan Carlos Fernandez elkarteburuak. "Ekimen hauek adore handia ematen digute, eta are gehiago jende gazteak egindakoak eta jende gazteari zuzendutakoak direnean. Oso inportantea da minbiziaren inguruko errealitatea eta solidaritatea txikitatik barnera dezagun".

Beste alde batetik, Iraultza Etxebarria Uritarra futbol-eskolaren entrenatzaileak aipatu zuen bezala, solidaritatea, bizikidetasuna eta kiroltasunaren balioak futbolari gazteei helaraztea du helburu txapelketak. "Balio horiek gure eskolaren filosofia osatzen dute, gu ez gabiltzalako emaitzen bila. Txapeldunak baino, pertsonak hezi nahi ditugu".



Iraultza **MAMEN** bertzerik
Eskolaren laguntzaileak

komunikazio - komunikazio

MIGUEL



Iraultza bertzerik
Eskolaren laguntzaileak

Iraultza bertzerik, komunikazio - komunikazio



IMPORTADORA DE VEHICULOS

IRULTZA BERTZERIK, komunikazio - komunikazio

IRULTZA BERTZERIK, komunikazio - komunikazio

IRULTZA BERTZERIK, komunikazio - komunikazio



Personak dira Bertokoren arima

Bertoko Zamudioko soinu-tresnen alkartea orain dala 14 urte sortu zan, herriko talde batek bultzatuta. Urte luze honeetan Zamudio eta Txorierritik ez ezik Euskal Herriko beste txoko askotatik be ibili dira, euskal kultura, folklorea eta euskerea bera zabaltzen.

t: Itxaso Marina / a: I.M. eta Bertoko

Soinu-tresnen alkartera instrumentu bat jotzen ikasteko hurbiltzen dan lagunak hamaika aukera ditu: albokea, trikitia, panderoa, txalapartea, paluak eta dultzaina. Gainera, datorren ikasturteari begira alkar-teak beste hiru ikastaro eskaintzeko asmoa dau: kantua, kainabera eta koilarak. Ikastarook Bertokoren heziketa-es-kaintza osatu eta aberastu egingo dabe. Baina Bertoko musika eskolea baino ge-hiago da. Bertoko hori osatzen daben personak dira, euren gogoa eta euskal kultureagazko daben maitasuna.

“Taldeak dauan baliabiderik handiena bere partaideak dira, eta alkar-tearen arrakastea horreengan dago”, azaldu deusku Josu Aretxabaleta Bertokoren presidentek. “Bertoko irakasleak, ikasleak, batzordekideak, gurasoak, lagunak... gara, eta bako-txak oso eginkizun garrantzitsua dau talde barruan. Jente desinteresaua da; herria, musikea eta euskerea maite dituan, eta zer garen erakusteko harro dagoana”.

Bertokok bilakaera handia izan dau bere ibilbidean zehar. Halan, 30 gaztetxo inguru zituala hasi zan taldea, eta gaur egun lau urtetik 40 urte eta pikora bitarteko ikasleak ditu. Sortu zanetik hona la-gun asko eta asko pasau dira taldetik “Gure helburua ez da oso musikari trebeak heztea, gure kultura zabaldu eta ikasle guztiek kanpoan joteko aukerea izan daiela baino”. Horretarako, urteerak antolatu eta hainbat

ekitalditan hartzen dabe parte, gurean zein Txorierritik kanpo.

Bailaran erreferente bihurtu dira, eta euskal kultura eta folklorea guztion artean zaindu behar dan altxorra dala irakatsi deutsee gainontzeko txorierritarrei. Herria eta kultureagazko sentimentua bideratzea lortu dabe. Ez da arrarora, beraz, edozein bariku edo zapatutan Bertokoko koadrila bat herriko kaleak girotzen ikustea.



Urteak daroazuez taldean, zein erakargarritasun dau horrek zuentzat?

Ikasteko prozesua ez dala klasean edo etxean gelditzen. Kalera urteten dogu, ikastitakoa jente-aurrean erakusteko. Eta bide batez, ikasten jarraitzen dogu, kalean agertu daitezkean egoera ezbardinei egin behar deutsegulako aurre.

Zer da Bertoko?

Ez da bakarrik musika; kulturea be bada, sortzen dan giroa, lagunartea... hainbat gauza! Berton egon behar da sentiduteko zer dan. Askok pentsauko dabe zapaturo jo behar izatea aspergarria dala, baina ez da horrela. Guk itzel gozatzan dogu; eta alboan dogunak be gozau egiten badau, askoz hobeto. Bizitzeko beste era bat da. Askotan alkarregaz lotzen gara poteo bat egin eta herrian giroa sortzeko. Gura dogulako, lagunak garalako eta gustura gagozalako. Bertokon sortzen dan giroa ez dago inon.

Oso gazteak zarie; beste talde batzuetan ez dago hainbeste gazterik, beharbada.

Txorierrin ohituta dagoz gu ikusten, baina kanpora urteten dogunean, harritu egiten dira gazteak garalako eta atxinako abestiak jotzen badakigulako. Batzuek, nerabazarora ailegau diranean, taldea itxi egiten dabe; guk jarraitu dogu, berton oso pozik gagozalako. Euskal folklorea lehengo gauzea dala pentsau daiteke kanpotik, baina gaur egungo musika be kantau eta jo daiteke. Egin behar dana lantzea da, eta gu prest gagoz horretarako.

“Bizitzeko beste era bat dalako”

IRATI ABONA, NEREA GOIRIGOLZARRI, ENERITZ LARRAÑAGA ETA OIHANE ZIORDIA



12 z gureakien munduko ibarrik onenak Bilbotik hain hurbil saltzen dituztenak

SUITE DELUX
MUNDU BARRA BARRA, 12 BARRA BARRA

Galchiñerria Urdosa La Barrena 151 Ekoizlearen enpresa 944 10 10 10	Galchiñerria Arbasua Parabatu Euzkoak Ekoizlearen enpresa 944 10 10 10	Loftara Kalkretal-Itenda Ekoizlearen enpresa 944 10 10 10
---	--	--

www.aikor.com

“Txorierriri bizitasuna emoten deutsalako”

OIHANA ASTOBIETA, NEREA GUARROTXENA ETA MARIJE BATIZ



Loiukoa, Sondikakoa eta Lezamakoa zarie hurrenez hurren, alkargunea da Bertoko?

Bai, Zamudioko jentea ez ezik Txorierriko gainontzeko herrietako jentea be –alboko herrietakoak ahiztu barik- ikasten dau Bertokon. Horri esker, txorierritarron arteko hartu-emona indartu egiten da. Herririk herri ibiltzen gara jotzen eta taldekiderekin batek beti ditu lagunak edo ezagunak bertan. Hango jentea lotu eta handiago egiten da taldea. Eskolan be oso gustura gagoz. Bertakoak bagina legez sentiduten gara Bertokon.

Zein da soinu-tresnen alkarreak Txorierriri egiten deutsalako ekarpena?

Oso ekarpen kultural handia. Bertoko sortu aurretik, txistuaz gain, ez egoan beste instrumentuak jotzen non ikasi. Musika herrikoa eta bizia lantzen dogu, eta horrek oso bizitasun handia emoten deutsalako Txorierriri.

Zergaitik Bertoko aukeratu?

Hurbiltasunagaitik eta hainbat instrumentu batera ikasteko aukerea eskaintzen dauan beste eskolarik ez dagoalako inon. Ganera, kalera urtetzen gara jotera, eta sortzen dan jai-giroa zoragarria da, benetan.

Umeez ikasteko leku aproposa da Bertoko?

Baietz pentsaten dogu. Batetik, euskal musika eta instrumentuak jotzen ikasten dabilz, eta hori pozgarria da. Bestetik, musika eskolan irakasle onak dagozala uste dogu, eta erabiltzen dan ikasteko prozesua egokia dala alaben adinerako. Jolastuz ikasten dabe; eta ikasteaz ganera, primeran pasaten dabe.

Zer nabarmenduko zeunkie eskoletan ganean?

Hango giroa eta beharra zelan bideratzen dan, talde-beharrari garrantzi handia emoten jakolako. Eurak oso pozik doaz Bertokora eta nahikoa da horregaz. Zer edo zergaitik izango da, ezta?

Beraz, alabek han jarraitu dagien asmoa dozue...

Eurek gura arte. Nagusiagoek beste instrumentu batzuk be jotzen dabezala ikusi dabe, eta eurei be instrumentu horreetarako grinea biztu jake. Apurka-apurka.

Neskak, Bertokon oso pozik zagozela entzun dogu, egia da?

Bai! Oso ondo pasaten dogulako, lagunakaz gagozalako, kalera jotzen urtetzen dogulako eta jolasak egiten doguzalako!

“Seme-alabak euskal folklorean murgiltzen diralako”

JAIME GARDOKI, JUNE ETA EIDER ETA OLAIAREN AITA;
ETA AITOR ELORRIAGA, LAIENEREN AITA





“Txorierri Bertoko barik ez dogulako imajinaten”

EDURTZETA ANIA | pandero irakaslea

Non dago alkartearen indarra? Non dago alkartearen indarra?

Partaideen konpromisoan. Orain dala urte batzuk boom itzela egon zan trikitiaren inguruan; eta boom horrek herri gehienetan behera egin dauan arren, Zamudion mantendu egin da. Gainera, beste instrumentu batzuk be hasi dira ikasten. Bertokoko ikasleak kalera urtetan dabe, lagunak dira, hainbat ekitalditan hartzen dabe parte... Kultura zein herri-mobimentuagazko konpromiso handia dauan jentea da.

Behar dan moduan estimaten dogu euskal kulturaren inguruan egiten dan beharra?

Hain gertu dagoanean ez zara ahalegineagaz ohartzen, baina kanpotik zatozenean atoa konturatzen zara: hainbeste jai, euskerea, kultura... Emonaldi bakotxaren atzean oso behar handia dago, entsegu asko, orduak... Bertokok ekarpen nahikoa handia egiten deutso euskal kultureari zein herriari. Horregaitik zaintzeko beharra dogu.

Ilusinoa mantentzea derrigorrezkoa da honek guztiak aurrera jarraitzeko, ezta?

Bai, beharragaz eta proiektuak jarraitzea oso inportantea da, ikasleek ilusinoa galdu ez daien. Bertoko moduko proiektu garrantzitsuak egon dira beste herrietan, baina akabuan desagertu egin dira, eta jentea orduan konturatu da zer egoan. Nik ez dot Txorierri Bertoko barik imajinau gura. Zorionez, Bertoko mantentzen ez ezik hazten be badoa urterik urte.

“Familia handi bat garalako”

FELIX, NAHIKARI ETA JANIRE BILBAO

Aita eta alabak zarie zuek. Familia handi bat da Bertoko?

Zalantza barik. Oso harreman sendoa dago gure artean, eta jentea laguntzeko prest azaltzen da beti. Ganera, alkarregaz zer egin badogu: urteerak, bazkariak, ospakizunak...

Eta zuen arteko harremana estutzeko be balio deutsue?

Alabakaz bikotea edo hirukotea osatzea amets izan dot betidanik, eta inoz alabetariko bategaz jo izan dot. Ea gehiagotan animaten diran!

Etorkizunean, zure seme-alabak, lobak... be Bertokon ibiltzea gustauko litxakizue?

Bai. Urteak daroaguz Bertokora lotuta era baten edo bestean, eta pozgarria izango litzateke atzetik datorren familiak be gure bidetik jarraitzea, ohitureari eustea... Ez kezkatu, aitek har-tuko dau horren ardurea!

Gainontzeko zamudioztarrak eta txorierritarrak animauko zeunkiez musika eskolan parte hartzera?

Jakina! Euskal folkloreak eta giroak merezi dabelako. Gure kultura bultzatzen dogulako, Zamudion zein Txorierri galdu ez daiten. Eta harreman itzela dagoalako taldekide guztien artean.



Bestarik besta

Santiago, Santa Ana, San Inazio eta San Esteban. Aldekoneko lagunak jai giroan eta santu artean murgilduta ibiliko dira uztailaren 24tik abuztuaren 3ra bitartean.



a: Aikor!, Aldekoneko jai-batzordea

Aldekoneko jaiak uztailaren 24an hasiko dira. Egun horretarako, txitxi-burruntzia eta hip-hop kontzertua antolatu dira. Hurrengo egunean, Santiago ez eze Euskeraren Eguna be ospatuko dabe Derioko auzoan. Besteak beste, kalejirea, dantzen agerraldia eta Mus eta Tortilla Txapelketak egongo dira egun osoan. Azken horri jagokonez, hiru sari nagusi banatuko dirala aitatu leike: 1. saria, garaikurra eta 60 euro; 2. saria, garaikurra eta 40 euro; eta 3. saria: garaikurra eta 20 euro. Erdizka Lauetan taldeak emongo deutso amaia egunari.

Eta astelehenean, barriro hastera. Santa Ana izango da eta jai batzordeak sukalki eta txokolate dastatzeak antolatuko ditu. Era berean, kalejirea eta pailazoak izango dira. Uztailaren 30ean, barikuan, ezin izango dogu mozorroa etxean ahaztu. Gaueko 9etatik aurrera mozorroek auzoa hartuko dabe, eta sariak be izango dira. Ostean, berbenea egingo da Trakets taldearen eskutik.

Zapatuan, San Inazio egunean, auzotarrantzat eta hara joandakoentzat hainbat ekitaldi izango doguz. Eguna goizgoiz hasiko da. Garari taldeagaz urtengo dogu kalejiran, eta eguerdian nazinoarteko folklorearen erakustaldiaz gozatzeko aukerea izango dogu. Horrezaz ganera, Buztan Txapelketea egingo da eta kasu honetan be hiru sari banatuko ditue: 1.

*“Besteak beste,
kalejirea, dantzen
agerraldia, txapelketak
eta berbenea izango
dira Euskeraren
Egunean”*

Boduzu arazorik nahi duzun lekura iristeko?



Arloko erakundeak

Arloko erakundeak

Arloko erakundeak

Arloko erakundeak



902 54 08 54



Jai-egitaraua

Uztailaren 24an, zapatuan

19:00: Txupinazoa.
21:00: Txitxi-burruntzia.
22:30: Hip-hop kontzertua.

Uztailaren 25ean, domekan. Santiago (Euskeraren Eguna)

11:00: Kalejirea, Garari taldeagaz.
12:00: Mezea.
13:00: Dantzen agerraldia.
16:30: Mus Txapelketea.

18:00: Apar-jaia.

19:00: Tortilla Txapelketea.
20:30: Tortilla Txapelketearen sariak banatzea.

21:00: Erromeria, Erdizka Lauetan taldeagaz.

Uztailaren 26an, astelehenean. Santa Ana

11:00: Kalejirea, Garari taldeagaz.
12:00: Mezea.

13:00: Sukalkia dastatzea.

18:00: Pailazoak.

20:00: Txokolatega dastatzea.

Uztailaren 30ean, barikuan

20:00: Kalejirea, Garari taldeagaz.

21:00: Mozorroen kalejirea, Aldeko netik.

21:30: Kalejirea, eleizearen plazan.

22:30: Mozorro Txapelketearen sariak banatzea, ume eta nagusientzat.

23:00: Berbenea, Trakets taldeagaz.

Uztailaren 31n, zapatuan. San Inazio

11:00: Kalejirea, Garari taldeagaz.

12:00: Mezea eta kopaua, nagusientzat.

13:00: Nazinoarteko folkloreak era-kustaldia.

14:30: Buztan Txapelketea.

15:30: Buztan Txapelketearen sariak banatzea.

19:00: Idi probak.

23:00: Berbenea, Bizargorri taldeagaz.

Abuztuaren 3an, martitzenean. San Esteban

12:00: Mezea eta kopaua.

14:30: Sukalki Txapelketea.

16:30: Mus eta Briska Txapelketak.


18:00: Ugelaxo-toka Txapelketea.

20:00: Mus eta Briska Txapelketen sariak banatzea.

20:30: Txitxi-burruntzia, Tolin maria-chiak girotua.

saria, garaikurra eta 100 euro; 2. saria, garaikurra eta 70 euro; eta 3. saria, garaikurra eta 20 euro. Arrastian, idi-probak egingo dira; eta gauean, berbenea, Bizargorri taldeagaz.

Abuztuaren 3an San Esteban izango da eta egun horretan agur esango deusegu Aldekoneko jaietara. Halanda be, ekitaldi sorta zabala izango dogu egun osoan; batez be txapelketak. Holan, bada, sukalki, mus, briska eta ugelaxo-toka txapelketak egingo dira. Sukalki Txapelketeak 150 euro banatuko ditu saritan: garaikurra eta 70 euro, irabazlearentzat; garaikurra eta 50 euro, bigarren lotzen danarentzat; eta garaikurra eta 30 euro, hirugarrenarentzat. Tolin Maria-chiak Mexikoko doinuak ekarriko deuskuz iluntzean.



Euskaltzaleen topagune bihurtu dabe Zamudio





Herria bor-bor dago. Lagatzu Zamudioko euskera alkar-teak Euskal Astea antolatu eban maiatzaren amaieran, eta ekainaren 26an Lagatzu Eguna-Euskal Jaia egin eban. Zamudioztarrek eta Txorierriko euskaltzaleek erantzun ezin hobia emon eutseen ekitaldi biei.

a: Lagatzu

Euskal Astea 11. aldiz egin da aurton. Urtean zehar alkar-teak antolatzen dituan ekitaldien erakusgarria da hori eta besteak beste, antzerkia, kanta afaria, umeei zuzendutako ibiltaldi didaktikoa, kantaldia eta literatura emonaldia izan ziran. Lagatzu Eguna be 11. aldiz antolatu dabe.

Alkar-teak 10 urte bete zituan igaz eta urteurrenaren haritik zerbait berezia egi-tea pentsau eben, Euskal Jaia hain zuzen be. Herriko gainontzeko taldeakaz alkartu eta ideia ona iruditu jaken guztiei. Zamudioztarrak buru-belarri hasi ziran behar-rean eta egun ahaztuezina atera zan. Baina ekimen puntuala izango zana urteko hitzordua bihurtzeko bidean dago. Izan



BARRIO BARRIO

Industria eta Merkaderia
Barriongo erakundeak

Oraineko herrikoak

Herrikoak eta erakundeak
Lagatzu eta Zamudioko herrikoak

ZAMUDIOKO ANTOR

94 400 1016
94 400 1004

Pl. Zamudio
Pl. 4. floor
94000 ZAMUDIO

BIDE-GORRI

Bizirikideak. Plazak bizirikideak

Herrikoak eta erakundeak
Lagatzu eta Zamudioko herrikoak

be, Euskal Jaia aurton be antolatu da Lagatzu Egunaren barruan, herritarrek halan eskatuta. Ehunaka zamudioztar eta euskaltzaleek Zamudioko kaleak hartu ebezan, eta euskera eta euskal kulturea nagusi izan ziran herriko txoko guztietan. Batukadak hasierea emon eutsan egunari, eta handik aurrera ekitaldi sorta zabala egon zan edade guztiei zuzenduta: kalejireia, euskal produktuen azokea, talo tailerra, herri-bazkaria, Taberna Ibiltariaren saioa eta erromeria, banaka batzuk aita-tzearren. Parte-hartzaileak euskal janzke-ragaz joan ziran ekitaldira.

Lagatzu oso eragile aktiboa da herrian. Era berean, topagunea be bada zamudioztarrentzat; arnasa hartzeko lekua. Euskera eta euskal kulturea sustetez ganera, herritarren arteko hartu-emona sendotzea be badau helburu, eta horregaitik alkartetik urteten dan edozein ekimenek oso harrera ona dau zamudioztarren partetik. Euskal Astea eta Lagatzu Eguna-Euskal Jaia horren seinale dira.




Baserritarren Alkartea
Terama S. Coop.

Arantzeta, 11 B2X
48941 ZIBONIA
945 100481
www.baserritarrenalkartea.org
Izanak: 144



TXEKOLINA
LAGATZU



1976 74

1976-1977-1978-1979-1980-1981-1982-1983-1984-1985-1986-1987-1988-1989-1990-1991-1992-1993-1994-1995-1996-1997-1998-1999-2000-2001-2002-2003-2004-2005-2006-2007-2008-2009-2010-2011-2012-2013-2014-2015-2016-2017-2018-2019-2020-2021-2022-2023-2024-2025

Herri Taberna
Arantzeta, 11 B2X
945 100481


Maiz-Beñatzen Maiz Beñatzen Herri Tabernaren berbera
LAGATZU
1976-1977-1978-1979-1980-1981-1982-1983-1984-1985-1986-1987-1988-1989-1990-1991-1992-1993-1994-1995-1996-1997-1998-1999-2000-2001-2002-2003-2004-2005-2006-2007-2008-2009-2010-2011-2012-2013-2014-2015-2016-2017-2018-2019-2020-2021-2022-2023-2024-2025

BASALBEITIKO TXEKOLINA



1976-1977-1978-1979-1980-1981-1982-1983-1984-1985-1986-1987-1988-1989-1990-1991-1992-1993-1994-1995-1996-1997-1998-1999-2000-2001-2002-2003-2004-2005-2006-2007-2008-2009-2010-2011-2012-2013-2014-2015-2016-2017-2018-2019-2020-2021-2022-2023-2024-2025

OTRO MUGA PROIEKTU



1976-1977-1978-1979-1980-1981-1982-1983-1984-1985-1986-1987-1988-1989-1990-1991-1992-1993-1994-1995-1996-1997-1998-1999-2000-2001-2002-2003-2004-2005-2006-2007-2008-2009-2010-2011-2012-2013-2014-2015-2016-2017-2018-2019-2020-2021-2022-2023-2024-2025



Literatura plazara

a: Lurdes Etxebarria

Ekitaldi batzuk apirilean eta maiatzean egin baziren ere, Literatura ekainaren 4an, 5ean eta 6an heldu zen Larrabetzura. Euskal literaturaren azoka da; euskal idazle, irakurle, ikusle eta entzuleen topagunea. Azokako liburuak eskura izateaz gainera, horien egile asko ere hurbildu ziren bertara, euren lana aurkeztera, mahai-inguruetan parte hartzera edota irakurketa saioak egitera, esate baterako.

Larrabetzuko Literatura Eskolak bost urte bete zituen iaz, eta urteurrena ospatzeko, Literatura azoka antolatu zuten lehenengoz. Joan den urteko asteburu berezi hori aurtengo ekainean errepikatu da berriro ere. Azokak irakurzaletasuna ez ezik idazle eta irakurleen arteko harremana ere bultzatzea du helburu. Bigarren edizio honetan bere nortasuna indartu egin du, eta gero eta jende gehiagorengana heldu da.



Harrera ekitaldiak hasiera eman zion Literatura jardunaldiari ostiralean. Herriko plaza, Anguleri Kultura Etxea, eskola eta Hori Bai gaztetxea izan ziren hiru egunetan zehar antolatu ziren ekitaldien eszenatokiak. Han ikusi eta gozatu ahal izan zen


Irakurzaletasuna zein idazle eta irakurleen arteko harremana bultzatzea du helburu azokak

nagusi zein txikientzako antzerkiaz, kontzertuez, poesia emanaldiez, ipuin bertsoetuz, ipuin antzeztuez, bertso-tramaz, omenaldi xumeez... hau da, literaturarekin lotu daitezkeen mota guztietako eta gustu guztietarako adierazpenez. Erantzuna ere handia izan zen, asko eta asko izan baitzen ikuskizun guztietara hurbildu zen jendea.

Literaturaren mamia

Hogeitik gora idazlek aurkeztu zuten euren lana. Mahai inguruak ere egin ziren. Horieta ere jende ugari hurbildu zen. Izan ere egileekin zuzenean egoteko aukera izateaz gainera, hainbat txokotako 12 irakurle talde batu ziren mahai-inguru





batean, euren gogoeta, esperientzia eta asmoak trukatzeko. Talde formalagoak zein berezkoak izan ziren horiek, eta aniztasuna nagusi gertatu zen euren artean. Baita aberastasuna ere, irakurle aktiboak izanik euren ikuspuntua emateko prest agertu baitziren denak. Mahai-inguruek aukera ederra eman zuten letren inguruko kezkek eta galderak azaleratzeko. Besteak beste, gai hauek aztertu ziren bertan: itzulpenak, hizkuntza-tratamendua, beste kultura batzuen ekarpenak eta poesian dagoen zientzia eta letren arteko elkarlana.

Literatura Eskola eta herriko taldeei esker, eskaintza oparoa eman ahal izan zen asteburu osoan. Ekitaldietarako antolakuntza eta azpiegitura, herria atontzea, jantoki zerbitzua, kultura eta kirol taldeen ekarpenak eta abar ez zen posible izango hainbat talde eta auzokideen laguntzarik gabe. Balorazioa baikorra da, beraz, eta jadanik badago Literatura azoka hurrengo urtean berriro egiteko gogoia.



**SARRIKOI A
OGITELGIA**

Produktuak
Barrutik
Holanbait
I banku bertsu

Maiztasunak, 100 L. m. da. da.
Tel: 04 455 81 44
878 010400

J. KLOHRLAGA
Klaxa Berriak, Berriak eta
Berraketa
Tel: 04 455 81 44
1 455 81 44

**Poluker's
Estetika**

04 455 81 44

Pignatelli
Tel: 04 455 81 44

Uguiza
Tel: 04 455 81 44

t/a: Itxaso Marina

Espumosos Chorierrri enpresea Benito Baganen aitak sortu eban orain dala 100 urte baino gehiago. Fabrika Asuan eban, eta bertan, garai hatan hain ospetsua zan Txorierrriko gaseosea egiten eban. Gaseosea kuartilo eta erdiko botiletan merkatu-ratzen zan.

Benito Lezamara ezkondu eta aitaren beharragaz jarraitu eban han. Eta aldaketak egin eutsozan negozioari, gaseosea litro bateko botiletan hasi zalako saltzen. Urte batzuen ostean, Luis Mari Bilbao Benitoren suhina be gaseosearen negozioan sartu zan. Gaseosea etxean bertan ekoizten eban. Emazteak lagunduta, egu-nero 1.200 litro gaseosa egiten zituen.

Edozein freskagarri egiteko gaur e-gungo metodoak eta lehen erabilten zirenak oso ezbardinak dira. Lehenengo eta behin, gaseoseari saborea eta gorputza emoteko nahasketa prestau behar zan, eta horretarako, osagai honeek erabilten ziren: limoizko esentzia, azido zitrikoa eta edulkoratzailea. Osagaiak upeletan nahasten ziran, eta ondoren, nahasketa hori botiletan sartzen zan. Botilak birak emoten zituen makina baten jarrita, eta presinozko ura sartzen jaken. Oso adi egotea beharrezkoa zan, botilak bueltan etorten ziranean tapoia jarri behar jakelako, barruko likidoa ez botatzeko. Esentzia Luis Marik berak ateraten eutsen limoiei,

“Oso ospe ona eban eta Zornotzatik eta beste herri batzuetatik be etorten ziran, gure gaseosea eroatera”

“Sabore fuertea eta indar handia zituen; botila bakoitza 35 pezetatan saltzen zan”

Gure gaseosea

Eguzkia gogoz hasi da joten. Edari fresko bat hartu eta gerizpean jesartzea baino hoberik ez dago garai honetan. Nagusiagoak Txorierrriko gaseoseagaz -limonadea, batzuentzat- gogoratuko dira, seguruenik; eta gazteagok hari buruz berba egiten entzungo eban, beharbada. Gaur egun, Txorierrri txakolinagaitik ezaguna bada be, antxina gaseoseagaitik be izan zan.



eta ura etxekoa zan. Hareagaz garbitzen eben. Urtean mila kilo limoi erosten ebezan, eta litro asko eta asko ur erabiltzen zan, gaseosea egiteko. Ganera, botilak bueltatzekoak ziran, eta horreek be ondo garbitu behar ziran.

Garai barriek moda eta gustu barriak dakarskuez. Ohiko gaseosea kolorez eta saborez aldatu zan eta freskagarri aromatikagoak hasi ziran merkaturatzen: limoizkoak, laranja-zkoak eta kolazkoak. "Gaseosa zuria ez eze barri horreek be hasi ginan ekoizten, jenteari asko gustaten jakenak. Gaseosak egiteko laranja, limoi eta kolazko kontzentrauak Murtzia aldetik ekarten euskuezan".

Txorierrikoa besterik ez

Beharaldia goizeko 8etan hasten zan. Eta handik eguerdira arte herriz herri ibiltzen ziran Txorierriko gaseosea saltzen. Bazkaldu ostean freskagarria egiteari ekiten eutsien. Gaseosea gure eskualde osoko tabernetan eta dendetan banatzen zan: Erandiotik Larrabetzura arte. "Kanpoan ez genduan saltzen, ez egoalako denporarik leku batetik bestera ibiltzeko. Halanda be, Zornotza eta beste herri batzuetatik etorten ziran gure produktua erostera. Oso ospe ona ebalako". Botila bakotxa gaseosa 35 pezetatan saltzen zan, eta ontzi hutsak 7-8 pezeta balio eban. Ha itzultzean, dirua be itzultzen jakon bezeroari.

Luis Mariren esanetan, Txorierriko gaseosea sabore fuertea eta indar handia zituen freskagarria zan. Horregaitik bertokoez haxe gurago eben, beste batzuk baino. "Ez Casera, ez Gorbea, ez ezer... Gurean Txorierriko gaseosea edaten zan". Baina marka eta sabore barriakaz batera, saltzeko teknikak be etorri ziran eta gaintzeko enpresek hamaika ideia asmau ebezan euren produktuaren salmentak handitzeko. Lehia etorri zan, ondorioz. "Gaseosea oparitzen hasi ziran. Botila-kopuru zehatz bat erosten bazan, horrenbeste litro gaseosa oparitzen eben. Baina guk ez genduan inoz ezer oparitu, asko kostaten jakulako gure beharra aurrera ateratea. Enpresa horreek euren lekua hartzen joan ziran apurka-apurka, eta guk gaseosea egiteari itxi behar izan geuntsan. Salmentak bajatu egin ziralako eta hainbeste behar egitea ez ebalako merezi. Baina orokorrean oso urte politak izan ziralako esan beharra dot".

Hemen beziketa lana da

TXORIERRI
GASEOSA

Garai barriak, gustu berriak

- Gaseosa zuria ez eze barri horreek be hasi ginan ekoizten, jenteari asko gustaten jakenak.
- Gaseosak egiteko laranja, limoi eta kolazko kontzentrauak Murtzia aldetik ekarten euskuezan.

Garai barriak, gustu berriak

- Gaseosa zuria ez eze barri horreek be hasi ginan ekoizten, jenteari asko gustaten jakenak.
- Gaseosak egiteko laranja, limoi eta kolazko kontzentrauak Murtzia aldetik ekarten euskuezan.

Garai barriak, gustu berriak

- Gaseosa zuria ez eze barri horreek be hasi ginan ekoizten, jenteari asko gustaten jakenak.
- Gaseosak egiteko laranja, limoi eta kolazko kontzentrauak Murtzia aldetik ekarten euskuezan.

ZURAS
Estalirik eta mugirik

Barriak, gustu berriak

94 455 50 19

TIKA IKUSLAN

Barriak, gustu berriak

94 455 50 19

GARAIOLTZA, S.A.
PROMOTORES Y FABRICANTES

- Lurrikolatuak
- Merkatuetatik ibiltzekoak
- Garaiak
- Informazio eta zerbitzuak
- Lurrikolatuak
- Merkatuetatik ibiltzekoak

Tel.: 94 455 50 19

GARAIOLTA ALDIA, 071 (BARNA)
19430 (BILBAO)

“Familiei eguneroko borroka arintzea dugu helburu”

t: Itxaso Marina / a: Nestor Sangroniz

Zelan sortu da elkarteak?

Arenek, nire alabak, Haurren zeroid olipofuszinosis neuronal berankorra gaixotasuna du. Kepa Sangroniz elkarteak sortu genuen joan den urtean, eta hurrezkeroko laguntza eta atxikimendu handia jaso dugu. Herrian badaude beste familia batzuk gurearen antzeko egoeran daudenak, eta horiek ere laguntza beharko zutelako pentsatu genuen.

Zein da zazpi ume horien egoera?

Areneren gaixotasunak ez du osabiderik. Estatu Batuetan tratamendu esperimental bat garatzen dabilta eta gu ospitalearen deia zain gaude; ea tratamenduan parte hartzeko aukerarik duen. Baina, ezer aldatu ezean, diagnostikoa ez da itxaropentsua, hemendik urtebetera hil litekeelako. Beste mutitxo batek intolerantzia du jaten duen guztiarekiko. Familiak Londreseko mediku bat bisitatu du eta nahikoa esperantza eman die. Garun-perlesia duen beste umetxo bat dago. Diagnostikoa ona izan arren, familiak arazoak ditu umeak behar dituzten zinketak emateko. Era berean, garun-perlesiarekin zerikusia duen gaixotasuna du-

GURE SEÑEAK, DERIOKO ELKARTEA

Derion zazpi ume daude gaixotasun arraroa edo larria dutenak. Gure señoak elkarteak umeei zein horien familiei laguntza emateko sortu da. Elkarteak irailean aurkeztuko da jendaurrean, baina Nestor Sangronizek ildo nagusiak aurreratu dizkigu.

ten beste ume bi daude. Eta esklerosi anizkoitza duen neskato bat. Gaixotasun arraroa duten seme-alabak dituzten beste familia bi daude herrian, antza. Oraindik ez gara haiekin harremanetan jarri, baina laster egingo dugu.

Kasu gehiegi herri berean, behar bada.

Askotan komentatu dugu; ez dakit. Estatistikei erreparatuz gero, gauza nor-

mala dela esango dute, agian. Derion gertatzen dena gure seme-alabak eskolara joaten direla da, kalera ateratzen direla... Eta sentsibilitate handia dago eurekiko.

Zertan lagunduko die elkarteak ume eta familia hauei?

Gaixotasun arraro edo larrien inguruan sortzen diren elkarteek oso alderdi zehatzak lantzen dituzte, eta familiek normalean ez dute laguntzarik jasotzen egunerokotasunaren gaiei dagokienez. Guk familia bakoitzaren egoera aztertu eta zein beharrezkoak dituzten ikusiko dugu: ekonomikoak, laguntzarik behar duten etxean... Horiek arintzen ahalegin duko gara.

Zein da hilabetero duzuen batez besteko gastua?

Ohiko familia batek duena baino %25 handiagoa. Eta hori portzentaje altua da, batez ere gaur egungo krisialdia kontuan hartzen badugu. Gehienbat diru-bilketa izango da elkartearen helbururik nagusia. Izan ere, familiek dirua behar dute, umeek kanpoan garatzen dabiltzan tratamenduetan parte hartu ahal izateko. Horrezaz gainera, batzuek baldintza bereziak behar dituzte etxean, eta Sistema Publikoak horretarako ematen duen diru-laguntza oso gutxi da.

Zelan kudeatuko da elkarteak bartzan duen dirua?

Ez dugu nahi hartzen diren erabakien atzean soilik familiek egotea. Taldekideek zein herritarrek osatutako batzordea sortzea pentsatu dugu. Batzorde horrek, familia bakoitzaren beharrezkoen arabera, zein motatako kanpainak egingo diren zehaztuko du, eta bildutako dirua non eta zertan inbertituko den. Gainera, gurea elkarteak zabala izatea nahi dugu; nahi duen guztiak bertan parte hartzeko aukera izango du.

Medikuntza arloko aurrerapenei ere adi-adi egongo zaretela suposa-





“Gure seme-alabak eskolara joaten dira, kalera ateratzen dira... Eta sentsibiltate handia dago eurekiko”

“Gure gastua ohiko familia batena baino %25 handiagoa da hilabetero”

tzen dugu.

Gurasoek gehienetan ez dakigu nora jo, norekin hitz egin, zein motatako ikerketak dauden kanpoan, tramiteak zelan egin behar diren... Hutsune hori betetzen ere ahaleginduko gara. Horretarako, familia bakoitzak nolako argibideak behar dituen aztertu, eta ahalik eta informazio gehiena biltzen saiatuko gara. Umeak sor litezkeen tratamenduetara bideratzen ere ahaleginduko gara... Gurasoek borroka askori egin behar diegu aurre egunero: etxean, medikuekin... Eta elkarteak familiei eguneroko borroka horiek arintzea du helburu. Seme-alabekin egon ahal izan daitezela; bizi-kalitatearekin eta gozatuz.

Oso mugimendu handia antolatu da Arene eta Kepa Sangroniz elkartearen inguruan, Gure señoak elkarteak

ere atxikimendu bera izatea espero duzue?

Bai, hori da helburua. Arene eta Kepa Sangroniz elkartearekin bat egin duten lagunek Gure señoak elkartearekin ere bat egin dezatela; eta horiekin batera, lagun gehiagok. Gurea kasu berezia dela diote, baina guk ez dugu uste familia berezia garenik. Beste familia askok egunero aurre egin behar dieten arazo berberrei egiten diegu aurre egunero. Dena dela, berezitasun hori erabili nahi dugu, Arenek tamalez laguntza eta ahalegin honetaz baliatzeko aukerarik ez badu, beste ume batzuek aukera izan dezaten.

Zertan lagundu ahal dizuegu herri-tarrek?

Elkartea irailean aurkeztuko da jendaurrean. Asteburu bitan zehar kirol eta kultura ekitaldiak antolatuko dira, eta gure lanaren berri emango diegu txorie-rritarrei eta kanpotik etortzen direnei: nortzuk garen, zelan egin daitezken bazkide, zelan jarri harremanetan gurekin... Laguntza ekonomikoa gure premiarik handienetarikoa bada ere, garrantzitsuak diren beste beharrez batzuk ere baditugu: etxean seme-alabekin lagun diezaguten; gutunak-eta hainbat hizkuntzatan itzultzea, kanpora agintzeko; boluntarioak, ekitaldiak antolatzeko... Beste alde batetik, medikuntza arloan kontaktuak dituen jendearen laguntza ere beharrezkotzat dugu, informazioa jasotzeko eta nora jo jakiteko. Era asko daude guri laguntzeko, eta bakoitzak bere ekarpena egin dezake.



Enfermerías Especializadas
HOSPITAL ALHAMA
Unidad de Hematología

Matrikulak: uztaierren 7tik 13ra bitartean

ITOPILAK (ITOPIL) - unitateak beren gela unitateak izan daitezke:

- Eguzki-erregulazio, -erregulazioa / -erregulazioa
- Eguzki-erregulazio, -erregulazioa (L-ERREGULAZIOA)
- Eguzki-erregulazio (L-ERREGULAZIOA)

ITOPIL unitateak:

- Eguzki-erregulazioa eta -erregulazioa (L-ERREGULAZIOA)
- Eguzki-erregulazioa eta -erregulazioa (L-ERREGULAZIOA)
- Eguzki-erregulazioa eta -erregulazioa (L-ERREGULAZIOA)

ITOPIL Unitateak (Eguzki-erregulazioa)

- Eguzki-erregulazioa eta -erregulazioa (L-ERREGULAZIOA)
- Eguzki-erregulazioa eta -erregulazioa (L-ERREGULAZIOA)

ITOPIL Unitateak (Eguzki-erregulazioa)

- Eguzki-erregulazioa eta -erregulazioa (L-ERREGULAZIOA)
- Eguzki-erregulazioa eta -erregulazioa (L-ERREGULAZIOA)

ITOPIL Unitateak (Eguzki-erregulazioa)

- Eguzki-erregulazioa eta -erregulazioa (L-ERREGULAZIOA)
- Eguzki-erregulazioa eta -erregulazioa (L-ERREGULAZIOA)

Larramendi 2 eta 4, 41011 (ALHAMA) e-mail: alhama@hospitalalhamas.com - telefonoa: 94 473 61 51

*t/a: Gaizka Eguskiza***Zelan hasi zinan behar honetan?**

Artzain baten etxean egon nintzan beharrean, eta bertan moztaille batzuk jarri nintzan hartu-emonetan. Hareek eskini eusten eurakaz joatea ardiak harrapetan, eta onartu egin neban. Guztira, bost urte emon neban holan. Geroago, igaz, taldean sartu nintzan. Bertan ez dago beste txorierritarrik: Durango eta Markinakoak dira. Ganera, batzuetan Nafarroako koadrila bategaz ibiltzen gara.

Zergaitik erabagi zenduan behar horrerik ekitea?

Betidanik gustau jat ardi-moztaileakaz ibiltea. Txikitan aitagaz joaten ginan Zornotzara artzain bategana, eta batzuetan beharrak egiten eta ardiei ulea moztent laguntzen geuntsan. Garai hatan artaziak erabiltzen ebezan moztailleek. Gogoratzen dot gustura ibili nintzala, eta gaur egun be gustaten jat beharra.

Zergaitik gustaten jatzu?

Beharra bera gustaten jat, eta horrez ganera bidaiatzeko aukerea emoten deust horrek. Holan, leku eta jente asko ezagutzen dodaz. Besteak beste, lorazain, lantegi bateko langile edo basazain be egin dot behar, baina gehien gustaten jatana moztaillearena da. Oporretan bizi nazala sentiduten dot behar honerik esker.

Behar gogorra emoten dau, batez be bizkarrerako...

Bai. Arduratsua izan behar zara. Artzainari egun batean joango zarala esaten badeutsazu, bete egin behar da berbea. Eta lana ardiak bukatzen diranean amaitzen da. Osasunari jagokonez, jarrera zaindu behar da, beste behar askotan gertatzen dan moduan. Moztaillea izateak erresistentzia eta malgutasuna eskatzen dauz, eta horregaitik luzatze-ariketak egitea da komenigarria.

Zelan ikasi dozu ogibidea?

Baten batek pentsau lei ogibidea ekinnaren ekinez ikasten dala, baina ikastegiak eta unibersidadea be badagoz. Uni-

“Oporretan bizi nazala dot behar honerik”

JOSEBA UGALDE | ardi-moztailea

Beste ugaldetar bat etorri jaku “Baserri mundua” atalera. Josebak, gazteena, ulea moztent deutse ardiei, eta normalean leku batetik bestera ibiltzen da. Zorionez, Larrabetzun harrapau dogu eta lezamar horregaz berba egiteko aukerea euki dogu.



bersidadea Zeelanda Barrian dago. Nik ikastaroak egin dodaz Frantzian, Oñatin, Jakan, Extremaduran... Ikastea ez da inoz amaitzen. Ozeaniatik ekarritako teknikea ikasi dogu: lehen animaliarene hankak lotzen genduzan, baina orain, ardiak aske dagozala ebagiten deutsegu ulea. Holan azkarrago egiten da eta ardiek gitxiago

sufriduten dabe. Hainbat gauza ikasi behar dira: esaterako, ardiak zelan nasaitu. Horretarako, moztaillea be egon behar da nasai; bestela, ardiek igarri egiten dabe eta hasten dira mugiten. Ez dago ardi gaiztorik, norberak eman behar deutso nasaitasuna, eta holan ondo aterako dira gauzak. Beste alde batetik, gorputza ze-

“Beharrak bidaiatzeko aukerea emoten deust: holan, leku eta jente asko ezagutzen dodaz”

“Ogibidea ikasteko ikastegiak badagoz eta Zeelanda Barrian, baita unibersidadea be”

“Etorkizuna gaur eta hemen dago. Gaur ardi-moztailea naz, baina bihar ez dakit”

sentiduten esker”

lan erabili be ikasi behar da. Koordinazioa funtsezkoa da: eskumako eskua, ezkerrekoa, hankak...

Bakarrik ala taldeka egiten dozu lan?

Ardien arabera. Asko badira, koadrila-koak biltzen gara beharrari ekiteko, baina gitxi badira, bakarrik ibiltzen naz.

Urte osoan dozu lana?

Mozketa bi egiten dira gaur egun. Bata, ardiak menditik bajatzen diranean. Guretzat errezagoa da, animaliak garbiago dagozalako. Eta bestea, maiatzean eta ekainean egiten da. Neguan gitxi egiten dogu lan. Dana dala, moztaila zaranean, inoiz ez dozu jakiten noz eukiko dozun beharra, eta askotan deiaren zain egoten zara. Adibidez, Frantzia eta Extremduratik ibili naz hartu-emonak egiten, eta gerta daiteke laster bertan be lan egitea. Frantzia neguan mozten dabe ulea, baita Zeelanda Barrian be, han udea dalako.

Zelan ikusten dozu etorkizuna?

Etorkizuna gaur eta hemen dago. Gaur ardi-moztaila naz, baina bihar ez dakit. Baserrian lan egitea oso gatxa da gaur egun. Gazte askok ez dabe gura, baina gura dauenak ezin dau, inbertsino itzela egin behar dalako, eta erakunde publikoek hainbat gauza eskatzen dabezalako.



BITOITEGIA ERROIA DENDIA
Ruben
Calle de la Cruz de Plaza, 1 - Tfn: 91 142 01 09
Carrizosa (Burgos)

Abelino Arriandogia
Calle de la Cruz de Plaza, 1 - Tfn: 91 142 01 09
Carrizosa (Burgos)

Kitchen sukaldaritza
KITCHEN SUKALDARITZA, KOKATZE SUKALDARITZA
KITCHEN SUKALDARITZA, KOKATZE SUKALDARITZA
KITCHEN SUKALDARITZA, KOKATZE SUKALDARITZA
KITCHEN SUKALDARITZA, KOKATZE SUKALDARITZA
KITCHEN SUKALDARITZA, KOKATZE SUKALDARITZA

ADARTE KATUEGIA
KATUEGIA
KATUEGIA
KATUEGIA
KATUEGIA
KATUEGIA

volcomsa
KATUEGIA
KATUEGIA
KATUEGIA
KATUEGIA
KATUEGIA



Mezu elektronikoak garesti atera dakizkiguke

Talde zabal bati zuzendutako mezu elektronikonak hartzaileen helbideak ezkutatu barik agintzea oso hedatuta dagoen ohitura da. Baina ohitura hori garesti ordain daiteke. Nahi gabeko jasotzaileek mezuak hala agintzeagatik salatu dituzte enpresak eta partikularrak. Eta Datu Pertsonalen Babeserako Agentziak 601 euroko isuna ezarri die.

Internauta askok ez dakite praktika hori legez kanpkoa dela, eta Norberaren Datuen Babesari buruzko Legearen 10. artikulua urratzen duela. Baina legearen ezjakintasunak ez du haren betebeharretik salbuesten. Aipatutako artikulua horrela dio: *"Fitxategiaren arduraduna eta norberaren datuen tratamenduari edozein fasetan esku-hartzea dutenak datuok babestera daude behartuta, eta sekretu profesionala gordetzera"*. Helbide elektronikoen talde bat fitxategi bat da,

eta horren arduradunak sortzailea zein erabiltzailea dira.

Legea ez betetzea 601 eurotik 60.101 eurora bitarteko isunarekin dago zigortuta. Dagoeneko, Datuen Babeserako Agentziak 601 euroko isuna ezarri die enpresa eta partikular batzuei, mezu kolektiboak hartzaileen helbide elektronikoak agerian daudela agintzeagatik.

Saihesteko erraza

Arau-urratzea eta horrek ekar dezaken isuna saihestea oso erraza da. Eta bide batez, besteen pribatasuna errespetatzeaz gainera, zabor-postak zabaltzea ere saihesten dugu. Posta elektronikoko programa batzuek, helbide-taldeak sortzen direnean, aukera hau ematen dute: helbideak automatikoki ezkutatzea, hartzaileek mezua jasotzen dutenean. Kasu hauetan nahikoa da "Nori"

eremuan taldearen izena idaztearekin.

Aukera hori ez duten programetan, berriz, horrela egin behar da:

- "Nori" eremuan, mezuaren igorlearen helbidea idatzi.

- "CC" eremuan, ezer ez.

- "CCO" eremuan, mezua jasoko duten helbideen zerrenda, edo alde aurretik helbideen libretan sortutako helbide-taldearen izena.

Mezuaren hartzaileek helbide bakarra ikusiko dute: bidaltzailearena. Mezua sortzen dugunean, "CCO" eremua agertzen ez bada, aukera batzuk ditugu: "Nori" edo "CC" leihatiletan klik egin eta hiru eremuak dituen leihoa zabalduko da; edo "Ikusi" menura joan eta "izenburu guztiak" aukera aktibatu. "CCO" eremua berehala agertuko da, eta hortik aurrera mezu berriak sortzen direnean ere bai.

Parcel 5000
 1.000.000
 1.000.000
 1.000.000
 1.000.000
 1.000.000

BAR RAFI
 1.000.000
 1.000.000
 1.000.000
 1.000.000

MAYORIAS INFORMATICAS
 1.000.000
 1.000.000
 1.000.000
 1.000.000

Iturrian zer dago?

t: Juan Luis Goikoetxea / i: Aritz Albaizar

–Egun on Zipiri!
–Kantari hator Luki!
–Bai! “Maritxu nora zoaz eder galant hori!”
–Haor jatorku Txori be!
–Txoritxu nora zoaz..?
–Hori gura zeunke zuk Luki, nik erantzutea: Iturrira Luki nahi badozu etorri.
–Zer dago, Txori, iturrian ba?
–“Ardautxu zuria” –dino kantak.
–Txakolin **guria** gurago neuke, Txori!
–Baita zera **bere**: “ardo gorri nafarra”!
–Nafarra ez dakit, Txori, baina “Donostiako hiru damatxo” abestian andra-kaitik esaten da: “josten ere badakite baina ardoa edaten hobeki”.
–Gizonok isilik hobeto taberna kon-tuetan ze, “Pello Joxepe tabernan dela haurra jaio da Larraunen” dino kantak.
–Dana dala, “Aita-semeak tabernan daude”, baina “ama-alabak jokoan” be badino. Gainera, ni ez nauzu holakoa

Txori: Nik dut “Iturriño bat aldean, han bizi naz bakean”. Halan be, “Ardo edan-da mozkortzen naiz, pipa erreta zora-tzen naiz, neska laguntzen lotsatzen naiz...”

–Lotsatzen bazara, zelan edango dogu, Luki, iturriko ardauxtu zuria?

–Zeuk bere, Txori, ez deustazu erantzun “nahi badozu etorri”, **kanteu** deusdanean: Txoritxu nora zoaz? Zuek neskak iturrira bidean beti ipintzen do-zue oztoporen bat edo errekaen bat igaro beharrekoa iturrira heltzeko.

–Gizonezkoak jakin egin behar dau, Luki, neskatoa erakartzen, arraren eta emearen arteko ibaia igarotzen, zubia eregiten, erabilirik: gatza suetean, mo-suak lantzean, bihotza danean.

–Ze berba ederrak! Txunditu nauzu! Ni prest, Txori, Markosek egin eban lako lastozko zubia eregiteko: “bertatik pasatzeko bera **ta txarrix**...”

–Baina kontuz, Luki, ze bertsoak di-no: “Markosek hartu eban kristoren osti-xe!”

–Ai ene! Noan etxera!

–Agur!

(*) Ahozko moduan esaten dana, letra baltzez doa



T. 94 452 34 47
www.aikora.com




T. 94 454 8574
www.pasadiderio.com

El Paquete Especial GOLF GASTRONOMICO
Incluye: 1 entrada a la fiesta, un aperitivo y un green fee para campo de 18 hoyos.

45€

www.aikora.com



LEHIAKETA

Bi lagunentzako tratamendua:
TXOKOLATEZKO ESTALDURA

Zer aurkeztu dute
TOTOANek eta
Itzarri enpresak?

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehen:

–Telefonoz: 94 452 34 47

–e-mailez: aikortxori@aikor.com

Aurreko erantzuna:

Derio, Sondika eta Zamudioko autoeskoletan

Irabazlea:

Ainara Elorrieta

Abakando-entsaladea

Osagaiak:

- 2 abakando edo misera (uretan egosiak)
- 2 eskarola
- Berakatz atal bat (txikitua)
- 6 koilarakada oliba-olio birjina
- 2 koilarakada limoi-ur edo jerez-ozpina
- Saltsa arrosea
- Tipulina (txikitua)
- Gatza

Prestateko errea:

Abakandoak zuritu, eta zatitu egingo dogu mamina. Eskarolea entsalada-ontzi baten ipiniko dogu. Beste alde batetik, katilu baten osagai honeek nahastauko doguz:

limoi-ura edo jerez-ozpina, gatza, oliba-olioa eta berakatz. Osagaiok eskarolearen ganetik bota eta eragin egingo dogu. Abakando-zatiak gehituko doguz, eta tipulina ganetik hautsez-tuko dogu. Entsaladea saltsa arroseagaz lagunduta aurkeztuko dogu, norberak gura dauen nahasketak egin daizan.



sukaldea.com

Etxeko sukaldaritza

Maite Lekerika, sukaldaria

Osagaiak:

- 300 g gurin (hozkaillutik bezperan aterako dogu)
- Hiru gorringo
- 75 g azukre
- 375 g gari-urin
- Glass azukerea



Prestateko errea:

Glass azukerea izan ezik, beste osagai guztiak eskuz edo orean egiteko gailu bat egaz nahastu egingo doguz. Orea egin da dagoanean, labea 200 gradutan ipini-




Bost minutuko pastak

ko dogu berotan. Pastelgintzako manga batez lagunduta, pastak egingo doguz labako bandeja baten. Pastei gura dogun itxura emongo deutsegu. Labara sartu eta temperatura 170 gradutara bajatuko dogu. Pastak oso arin egiten dira eta adi egon beharko gara. Horrezaz ganera, orean gogortu egiten da eta horregaitik eskuak bigundu beharko dogu mangara sartu orduko. Pastak labatik atera eta hotzitzen diranean, glass azukerea botako deutsegu ganetik.



Ercoreca
supermerkatuak

Flikalduvan adituak



Gomendioak

Amagoia Gezuraga

LITERATURA: NAGUSIAK


- Ez dago etxean. J. Urain
- Hamazazpikotan. K. Linazasoro
- Ospitalekoak. M. Antza
- Katu jendea. E. Rodriguez

LITERATURA: HAUR ETA GAZTEAK

- 1002.gaua. X. Mendiguren
- Tronpatxo. A. Kazabon
- Bat Pat-Tutankamonen amona. R. Pavanello
- Rock kantariaren bahiketa. P. Casals

MUSIKA

- Noa. Esne Beltza
- Goizalde surrealistikak. Surfin Kaos
- Hiru. Stupenda Jones
- Subiza. Delorean
- Cañon. Munlet




Stupenda Jones taldea.
Argazkia: Pegé

Sudokua

		3	1	2				
				9				
		2	6		5			9
	3	6		5				
	9			4				6
	1					2		3
			4		3	5		
			7				4	
						3	6	1

1	2	3	4	5	6	7	8	9
2	3	4	5	6	7	8	9	1
3	4	5	6	7	8	9	1	2
4	5	6	7	8	9	1	2	3
5	6	7	8	9	1	2	3	4
6	7	8	9	1	2	3	4	5
7	8	9	1	2	3	4	5	6
8	9	1	2	3	4	5	6	7
9	1	2	3	4	5	6	7	8



Show park ikuskizuna



Antzerkia eta filmak

Sondika

- > *Ino, ino, ino badator Bonbardino*. Uztailaren 8an, 12:30ean, Kultura Etxean.
- > *Show park*, Spasmo teatro taldearekin. Uztailaren 9an, 22:00etan, Kultura Etxean. Aire zabaleko pelikula. Uztailaren 13an eta 15ean, 22:30ean, Kultura Etxean.

Derio

- > *Percy Jackson y el ladrón del rayo*, aire zabaleko pelikula. Uztailaren 10ean, 22:00etan, Lainomendi kalean.
- > *Dos canguros muy maduros*, aire zabaleko pelikula. Uztailaren 24an, 22:00etan, Besaide plazan.

Azokak

Loiu

- > Produktu ekologikoen azoka. Uztailaren 11n, 10:30etik 14:30era, Elotxelerrri auzoan.

Dantzak

Derio

- > Nazioarteko Folklorearen Erakustaldia: Nikaragua, Buriatia eta Euskadi. Uztailaren 24an, 22:00etan, kiroldegian.

Erakusketak


Sondika

- > "Sondikako Udala" XIV. Kale-pintura Lehiaketaren lanak. Uztailaren 9ra arte, Erakusketa Aretoan.

Irteerak

Zamudio

- > Frantziako Pirinioak. Uztailaren 9tik 11ra, Arroeta mendi taldeak antolatua.



Bestelakoak

Derio

- > *Huellas* liburuaren aurkezpena. Uztailaren 7an, 20:00etan, Larrabari baserrian. Tokiko Agenda 21: ibilbide etnografikoa eta historikoa. Uztailaren 18an, 11:00etan, Uribe Parkean. DerioKOMunizazioak antolatua.

Zamudio

- > Plater-tiroa. Uztailaren 17an, 10:30etik 19:00etara, Txorierrri Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatua.

Larrabetzu

- > Biziletra programa, uztailaren 11n.

Matrikulazioa zabalik!

Gazteentzako 2010. Uztailaren 10etik
Telefonoz soto Arrosiler

Zuk, zein jantziko dozu?

Abekoa, Bultzaina, Patxak,
Panderroa, Trikitixa, Txalaparta,
Eunkal kantak (Berriak)
Kainubera eta Kollarak (Berriak)

GARRASUEN MUNDU
GARRASUEN MUNDU
GARRASUEN MUNDU

GARRASUEN MUNDU
GARRASUEN MUNDU
GARRASUEN MUNDU

**Gure gizarte erantzukizunak ingurumena
zaintzera behartzen gaitu...**

...malla handiko teknologiarekin.

ITP Talden artean handia egiten dugu. Berkeleto alorren hegaketa-motor magnetikoak, 10000000 CV² gatazpeko turbineak eta hainbat beste teknologia aurreratuak, berak erabiltzen dituzten gure enpresa aurreratuak dira. Gure enpresa berak erabiltzen dituzten teknologia berak dira. ITP Injekzio, Injuzioak, Aluminio, Balmak, Integritas (axoi duen Espainiako lehenengo enpresa aeronautikoa) eta Injuzioak eta Injekzioak dira. Gure enpresa berak erabiltzen dituzten teknologia berak dira. Gure enpresa berak erabiltzen dituzten teknologia berak dira.



AURTENETXE, SA.

Kontzezionarioa - Banatzailea - Zerbitzu Teknikoa

222 €



241 €



700 €



338 €



287 €



2.160 €



berria

Arctvalde auzoa, 105
48196 Lezama (Bizkaia)
Tel: 94 455 62 66
Faxa: 94 455 65 66

Sogcon Pol. 34. pah
Lauaxeta Olerkari
48100 Mungia (Bizkaia)
Tel. eta faxa: 94 674 83 62

Autonomía, 57
48012 Bilbao (Bizkaia)
Tel: 94 427 29 18
Faxa: 94 427 29 18